

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure proiektuak nola funtzionatuko duen azalduko dugu atal honetan. Helburu gisa elikaduraren garrantziaz kontzientzia piztea da eta hau lortzeko, asteak dituen zazpi egunetarako tuper batzuk prestatuko ditugu goierriko jendearentzat, gazteentzat batez ere. Tuper hauetan guk aztertutako janari osasungarria egongo da. Normalean sukaldatzea gustatzen ez zaion jendeak janari lasterretara jotzen dute, eta guk, hau ekidin nahian, janari osasungarria ahalbidetuko diegu.

Egia da antzeko ideia abian dagoela jada Espainia mailan, Wetaca izenarekin. Wetacak astero tuperrak ahalbidetzen ditu bezeroak hautatutako janariarekin. Hemen harpidetuta dagoen jendeak “karta” moduko bat du haien gustoen arabera gustokoa hauta dezaten. Hori da gehienbat haiengandik desberdintzen gaituena, haiek erosonatura ekartzen dute, guk berriz, erosotasuna eta osasuna. Ez dugu halako “kartarik” jarriko, baina horrek ez du esan nahi ez denik pertsonalizatua izango. Norberak bere gustuak ditu, egunero jango genituzkeen jakiak eta usaindu ere ezin ditugunak, beraz, honi bere garrantzia ematea garrantzitsua dirudigu. Horregatik, harpidetzean, hamar hutsune egongo dira, non maite dituzun bost jaki osasuntsu eta gorroto dituzun beste bost aipatu behar dituzun. Horrez gain, kalte egiten dizuten nahiaina jaki aipatu ahal izango dira, eta hiru zati hauetan ez da derrigorrezkoa izango hutsune guztiak betetzea. Jarritakoaz baliatuko gara astero tuperrak bidaltzeko orduan.



Funtzionamenduri dagokionez, astean zazpi tuper prestatuko ditugu. Tuper bakoitzean plater bat egon daiteke, baita bi ere. Horrez gain, plater baten ordean, jaki osasungarri batzuk egon daitezke, nork daki. Gure eguneroko bizitzan “rutina” batera ohiturik gaude, dena ondo planifikatua izatera, baina sorpresak badute nolabaiteko xarma. Zer jango dudan ez jakiteak interesa eta curiosidadea pizten du, egunerokotasun aspergarriari bere puntua ematen dio. Beraz, ezjakintasun horrek duen xarma ere ahalbidetuko du gure proiektuak. Hala ere, norbaitek egunero platerak nahi izango balitu eta produktuak baztertzeko baditu, guri jakinarazi behar digu soilik.



Guk web orrialde bat izango dugu. Hemen harpidetzean hainbat datu sartu beharko dira: telefono zenbakia, korreoa, helbidea eta kontu korronteren zenbakia. Prezioari dagokionez, astero 50€ izango dira. Egunerokotasuneko rutinan izaten ditugun hausturak (bidaiak, gaixotasunak...) direla eta, astero harpidetu beharra egongo da, beraz, zure bizitzaren arabera pentsa dezakezu aste honetan harpidetzea merezi duen ala ez. Entrega aipaturako helbidera iritsiko da astelehenero, astearen hasiera finkatzen duen eguna baita. Denok dakigu astelehenak oso astunak izaten direla eta honek astelehenak argitsuagoak egingo ditu. Gerta daiteke entregatzeko orduan jabea etxean ez egotea, kasu horretan jabeak berak harpidetzean jarritako puntu batera eramango da janaria. Izan daiteke bizilagun bat edota etxe beheko taberna, baina gertu egon beharra dago.

Bestalde, enpresa bezala etengabe hobetu egin nahi dugu bezeroak gurekin pozik egon daitezen. Denok gizakiak garenez, akatsak egitea ohikoa da, eta guk baztuetan hauek antzemango ez ditugunez, web orrialdean kritikak jarri ahal izango dira. Enpresa bezala esangurantsua iruditzen zaigu bezeroek gurekiko duten iritzia, lehenbaitlehen beharrezkoak diren hobekuntzak egiteko. Horrez gain, inkesta bat pasatuko diegu gure bezeroiei hilero, baztuetan inkesta bat betetzea errazagoa eta erosogoa egiten baitzaigu gure iritzia irizpiderik gabe ematea baino.



Gainera, bezeroekiko zerbitzuarekin jarraituz, hauek jaten dutenari buruz informazio izatea ezinbestekoa dirudigu. Horregatik, tuper bakoitzak dagokion etiketa moduko bat izango du. Etiketa hauetan tuperrean dagoen plater edo elikagaiari buruz jakin beharrezko informazioa egongo da (erabiliak izan diren produktu guztiak, prezio errealak, osusunean dakartzan onurak...). Etiketa hauen helburua bikoitza da. Alde batetik, bezeroak zer jaten ari den jakitea nahi dugu, eta bestetik, etorkizunean halako plater bat egin nahi badu hari buruz jakintza izatea behintzat.

Esan bezala, tuperretan eskainiko ditugu gure platerak edota elikagaiak, baina tuper hauek ez dira behin erabili eta segidan botatzekoak izango. Asko aztertu ostean, hala izango balitz eragingo genukeen kontsumoa izugarria izango zela ohartu gara. Beraz, honi irtenbide bat eman diegu: tuperrak berrerabiliko ditugu. Berrerabilketa prozesu honetan, guk harpidedunari zazpi tuper emango dizkiogu eta hurrengo astean, bakoitzari dagozkion beste tuperrak entregatzean, aurreko astekoak entregatu behar izango dituzte. Gerta daiteke

datoren aste hartan ez harpidetzea, eta kasu hartan, puntu ezberdinak finkatuko ditugu haiek jasotzeko. Puntu hauek herri bakoitzeko eroskiak izango dira.

Azkenik, Urretxu eta Zumarragako produktuen sustapena azpimarratu beharra dugu. Oso arto gaude gure lurretan ekoizten diren produktuetaz, eta nolabait hauei behar duten funtsezko bisibilitatea emateko. Agerre baserriarekin, Intsausti harategiarekin, Rueda fruta-dendarekin, Izarra arraindegiarekin eta Ametsa janari-dendarekin elkarlanean arituz, haien produktuak gure plateretan eskeiniz.

